

## HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

**IRAKASLEA:** Lorea Agirre Dorronsoro

**DATA:** 2020ko martxoaren maiatza eta ekaina (koiteretzia arteko)

### AZALPENA:

**Hitza, hizkuntza eta generoa**  
**Nor eta zer mintzo da gure ahotik?**

### AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

#### 1. Saioa

Mundua izendatzea (I)  
Zer da hitza?

#### 2. Saioa

Izendatzea (II)  
Taxonomiak eta zerrendak

#### 3. Saioa

Izendatzea (III): euskal izendegia  
Genero binarismoa erreproduzitzeko tresna.

#### 4. Saioa

Euskal izendegia eta naturalizazioa  
'Eguneroko ideologiak'

#### 5. Saioa

Izendatzetik hizkuntzara: hizkuntza ideologia

#### 6. Saioa

Hizkuntzaren ideologiatik metaforara  
Beste inpugnazio batzuk

#### 7. Saioa

Hizkuntza eta generoa  
Euskara emakume hizkuntza denean  
Euskara gizon hizkuntza denean

#### 8. Saioa

Euskalduna egin egiten al da?  
Hiztuntasuna

**1. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak,

irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

### **Elkar ezagutzeko eta gaian sartzan hasteko ariketa gu izendatzea:**

Bakoitzak bere burua aurkeztea izenean zentratuta (ni hasita): izena zein duen eta nondik datorren; nork jarria den, nork erabakia, eztabaidarik egon al zen; zer esanahi duen; gustura gauden gure izenarekin, izenorderik jaso dugun, nola deitzen diguten; zer esaten duen gutaz, gure jatorriaz, lurraldetasunaz, hautu linguistikoaz... zer espero zen/den gutako bakoitzaz jarri ziguten izenari erreparatuz gero; genero aldetik ze 'agindu' jaso genuen izena eman zigutenean...

### **Hitza, hizkuntza eta boterearen arteko harremana**

Hitzaren atzean zer dago?

Zer agintzen du hitzak? Zer eraikitzen? Ze metafora sortzen?

Hitzaren atzean dagoena aztertzen, botere harremanen argitan eta bereziki sexu-genero sistemaren argitan. Horretarako taldean gogoeta eta elkarrizketa irekia baliatu dira, hurrengo galderei segika:

Zer da hitza? Nork du hitza? Noren hitzak du balioa? Zer da hitzeko izatea? Nor izan daiteke hitzekoa? Nork hitz egiten du? Nor da berritsua? Nork hitz egin dezake?

### **Hitza, diskurtsoa vs berriketa, berritsukeria**

Zer esaten ditu euskal tradizioak: Toribio Altagaren eta euskal esaera zaharretan hitza eta generoa nola ageri den (ppta)

Hitza eta emakumea: genealogia txiki bat (ppta)

*Apuntea (1): Hizkuntza ukatuak (minorizatuak) eta generoa: 'Euskalduna Bilbon emakumea da'.*

**2. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

### **Taxonomiak eta zerrendak**

Nork erabakitzen nori/zeri zein izen eman?

Hango eta hemengo taxonomiak: zer diote?

Geure taxonomiak 'naturalak' ote dira? Espezien taxonomiak ideologiarik ba al du? Jorge Luis Borges-en 'John Wilkinsen hizkuntza analitikoa' ipuineko zati bat

irakurri.

Eztabaida: edozein taxonomia da posible? Sexu-genero sistema erabiltzen al da taxonomiak egiteko?

### **Letren generoa: ze bokal zara zu?**

Norberak gustuko duen bokala aukeratu dezala.

Edo norberaren izena bokalez amaitzen bada zein bokalez amaitzen den eta horren guztiak zerbait esan nahi ote duen ikusi.

Bokalen generizazioa euskararen baitan: historikoki nola joan den aldatzen.

**3. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

COVID19aren eraginez Hitzaren Eskola bi saioaren ostean eten egin behar izan genuen itxialdian sartu ginelako. Tarte horretan, ariketa hauxe bidali nien, Unai Elorriagaren 'Ortozik eta zikin' ('Iturria', 2019, Susa) ipuina –itxialdi bat kontatzen duena– inspirazio iturri hartuta gogoetarekin jarraitzeko. Eta 3. saioan sentipenak eta idatziak konpartitu genituen. Hemen ariketa jasotzen zuen Mezua:

*Hitza etenda geratu zaigu azkenengoz Dinamoan elkartu ginenetik. Nork esan orduan... hitzen atzean zegoenari begira ari ginela...*

*Zer dago oraingo hitzen atzean? Zeintzu dira oraingo hitzak? Erdigunea hartu dutenak? Aurretik hainbesteraino etxekotuko genituenik sumatu ere egiten ez genituenak? Birusa, Wuhan, pandemia, etxealdia, itxialdia... eta beste, denok eguneroko ogia lez darabilzkigunak. Eta zeintzu norberaren hiztegi partikularrera etorri diren hitzak edota itzuli direnak? Eta ekarri ditugunak? Ze hitz dira? Nolakoak dira? Zer dute atzean? Zer ezkutuan? Demagun, otutzen zait, zer zen haur bat Covid 19a aurretik eta zer da orain? Zer zegoen haur hitzaren atzean lehen edo zer dago orain?*

*Ariketa bat proposatzen dizuet. Hitz horietatik abiatuta, bizi dugun egoera honen gaineko hitzen atzea arakatzea, edo egoeraren gogoetatzea, kezka bat, ideia bat, pentsamendu bat, lerro bat, poema bat, keinu bat, zirriborro bat... osatzea. Nahi duen formatoan, kantatu, irudi, bertso, musika... edozer. Dena libre, katean ibiltzera behartuta gauden garaiotan.*

*Atxikita, ipuin bat duzue, inspirazio eragile izan daitekeena: Unai Elorriagaren 'Ortozik eta zikin' ipuina, iaz argitaratu zuena, 'Iturria' liburuan. Ea zer iruditzen, ea zer esaten dizuen...*

*Guztion hitzak aurrez aurre biltzen garenean parkekatu ditzakegu.*

**Taxonomiak: izendegiak**

Gogora ekarri lehen saioan aurkezpen gisara egindako ariketa: norbere izenaren 'deseraikitzea'

Berdina ote da Lorea, Haizea, Usoa, Estitxu edo Maitane izena izatea edo Harkaitz, Haritz, Harri edo Zigor izatea? Edo Lorea eta Lorena? Edo Joxemari eta Jonathan?

Izenak identitatea eraikitzen duenean.

Euskal izendegiaren historia liluragarria XIX mende hasieratik 2019ra

(ppta). Euskal izendegia eta generoa: binarismoa erreproduzitzeko

tresna.

**4. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

**Izendegia eta naturalizazioa prozesua** (feminismoaren lezioa).

- Adan-en saihetsetik: erro maskulinoa beti da ardatza edo emakumeok galtzak jantzi bai baina gizonek gona ez.

**Izendegia eta duintasuna:** ze duintasun du Uxoia izeneko mutil batek?

Euskal izendegia eta generoa: disidentziak posible dira? Badira?

- Zein izen jarri diegu geure umeei? Zein jarriko genieke? Zergatik?
- Disidentzia posible da?
- Zein litzateke zuon izen disidentea? Aukeratu bat eta arrazoitu.

Marcela Lagarde: eguneroko ideologiak (ideologias cotidianas). Testua irakurri eta eztabaidatu.

*Apuntea (2): Salbuespena: euskal izendegia disidentzia tresna izan denean: erresistentzia eta etni(demos)zitatea.*

**5. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

## Izendatzetik hizkuntzara: hizkuntza ideologia

Talde eztabaida:

- Euskarazko izendegia ordenatzeko behar hau eta horrela ordenatzeko behar honek zer esaten digu euskararen gainean pentsatzen dugunaz?
- Euskal izenen gainean pentsatzen duguna (nolakoak diren eta ze arau bete behar dituzten) euskararen gainean ere pentsatzen dugu?
- Eta euskaldun izateko moduan eraginik badu?
- Euskalduntasuna definitzen al du?
- Eta euskal gizarteaz zer diosku? Zer dio gutaz?

### Zer da hizkuntza ideologia? (I)

Hizkuntza, ideologia legez

“Hizkuntza ez da komunikazio tresna hutsa, ezta ere diskurtso edo ideologiak eraiki eta zabaltzeko tresna hutsa bakarrik. Baizik eta hizkuntza berari buruzko irudikapenen kutxa da. Bestela esanda, hizkuntza ideologiak mundua ulertzeko modu jakinak sortzen dituela, hots, hizkuntza baten sorrerari buruzko irudikapen multzoak edo haren ezaugarriei buruzkoak mundu ikuskera zabalagoa baldintzatuko duela. Alde horretatik, nabarmentzekoa da lan ideologikoa hizkuntzaren irudikapenen bidez gauzatzen dela eta irudikapen horietako askoren oinarrian Deborah Cameronek diskurtso bikoitza izendatu duena dagoela: hau da, hizkuntza da hizkuntza bera eta aldi berean beste zerbaiten ordezkotako sinbolikoa. Hizkuntzaren erabilera zuzenari buruzko adierazpenek adierazten dute hizkuntzan ordena jartzeko nahia, baina, beste maila batean, beste arlo batzuk kontrolatu eta antolatzeko modua ere. Hizkuntza ordenatzeak mundua ordenatzea esan nahiko luke”. (Trikua esnatu da, 2019, Lisipe).  
Irakurri eta eztabaidatu.

*Apuntea (3): Ze hizkuntza ideologia dago euskara batuaren eta euskalkien arteko eztabaida zahar-berritan? Ze ideologia dago hikaren barruan? Noka eta tokaren artean? Nokaren desagerpenean eta tokaren 'autentikotasunean'?*

**6. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

## **Hizkuntzaren ideologia II: metafora**

Hizkuntza metafora hutsa da: Joxe Azurmendi, Adriene Rich.

Kenneth Burke: "Metaforaren funtzioa izendatzea da eta izendatze sistema eratzerakoan giza taldea bere buruaren definizioa egiten ari da, pertsona zehatzak izendatuz gizakia zer den adierazten, nortasun indibidual zein kolektiboak eraikitzen, eta bere mundu ikuskeraren berri ematen. Eta hori guztia metaforaren bidez egiten da. Izenen oinarrian metafora dago, izendatzen duten hori zer den adierazten duen irudia".

**Hitza eta performatibitatea:** Judith Butler

Generorik gabeko idazketa generorik gabeko mundu batentzat

**Hitza eta subalternitatea:**

Hitz egin dezake subalternoa? Gayatri Spivak

*Apuntea (4): zein hizkuntzak hitz egin dezake? Hizkuntza subalternoa hitz egin dezake?*

**Eta beste inpugnazio batzuk:** materialismoaren idazketa eta Dekolonitatearen berridazketa...

**7. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

**Hiztetik hizkuntzara: hizkuntza eta generoa**

Robin Lakoff, 'language and woman's place' (1972)

**Euskara eta generoa**

Gogoratu dezagun lehen apuntea: *Apuntea(1): Hizkuntza ukatuak (minorizatuak) eta generoa: 'Euskalduna Bilbon emakumea da'.*

**Euskara hizkuntza feminizatua ote da?**

Ezagutza, erabilera, atxikimendua, transmisioa eta aktibismoa: datuak.

Euskara emakume hizkuntza denean

Euskara gizon hizkuntza denean

Minorizaziotik hegemoniara, feminizaziotik maskulinizaziora.

Euskara eta despatriarkalizazioa

*Apuntea (5): Shirley eta Edwin Ardener, 'Talde mutuak'.*

**8. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

## Emakumea egin egiten da.

“Emakumea ez da jaiotzen: egin egiten da. Ezein destino biologikok, psikikok, ekonomikok ez du definitzen gizaki emeak gizartean duen irudia; zibilizazio osoak sortzen du

gizonaren eta zikiratuaren tarteko emaitza hori, femeninotzat jotzen den hori.

[...] Interpretazio-sistema oker horren oinarria zera da, ontzat jotzea naturala dela gizaki emearentzat emakume *femenino* bihurtzea: ideal hori

mamitzeko, ez da nahikoa heterosexuala izatea, ezta ama izatea bera ere; “egiazko emakumea” produktu artifizial bat da, zibilizazioak ekoitzia, garai batean castratoak ekoizten zituen bezalaxe; ustez pinpirinkeriarako, otzantasunerako duen “sena” ikasarazi egiten zaio, gizonari harrotasun falikoa bezalaxe; gizonak ez du beti onartzen bere gizon bokazioa; emakumeak arrazoi sendoak ditu are otzantasun gutxiagoz onartzeko esleitu zaion bokazioa”.

‘Bigarren sexua’, Simone de Beauvoir (1949)

Ordezkatu emakume hitza euskara hitzagaratik eta gizona erdaragaratik.

“EMAKUMEA ..... ez da jaiotzen: egin egiten da. Ezein destino biologikok, psikikok, ekonomikok ez du definitzen GIZAKI EMEAK ..... gizartean duen irudia; zibilizazio osoak sortzen du GIZONAREN ..... eta ZIKIRATUAREN ..... tarteko emaitza hori, FEMENINOTZAT ..... jotzen den hori.

[...] Interpretazio-sistema oker horren oinarria zera da, ontzat jotzea naturala dela

GIZAKI EMEARENTZAT ..... EMAKUME *FEMENINO*

..... bihurtzea: ideal hori mamitzeko, ez da nahikoa

HETEROSEXUALA ..... izatea, ezta AMA ..... izatea bera ere; “EGIAZKO EMAKUMEA”

..... produktu artifizial bat da, zibilizazioak ekoitzia, garai

batean castratoak ekoizten zituen bezalaxe; ustez PINPIRINKERIAKO

....., OTZANTASUNERAKO..... duen “sena” ikasarazi

egiten zaio, GIZONARI ..... HARROATSUN FALIKOA ..... bezalaxe; GIZONAK

..... ez du beti onartzen bere GIZON-BOKAZIOA .....;

EMAKUMEAK ..... arrazoi sendoak ditu are otzantasun

gutxiagoz onartzeko esleitu zaion bokazioa”.

Zer gertatzen da testuarekin? Zer dio? Baliokideak dira?

**Euskalduna egin egiten al da?**

**Nola egiten da eta nolakoak egiten gara?**

Ze gorputz (ahots, keinu...), ze ideologia, ze genero ematen digu euskaltasunak eta zer erdaltasunak?

**Hiztuntasuna:** kontzeptu berri bat, euskaltasunetik harago.

**Azken jolasa:**

Euskara hitzaren etimologia bilatuko dugu: enausikara, esanera, esateko era, izendatzea.

Eraiki dezagun metafora bat esanahi horrekin denon artean, hizkuntza ideologia baten oinarri izango dena, eta horrek gu eraiki eta geure mundua eraikiko duena, utopia bat eraikitzeko.

**BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK** (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

**Hizkuntza:**

Joxe Azurmendi  
Adriene Rich  
Judith Butler  
Gayatri Spivak

**Feminismoa:**

Idurre Eskisabel  
Carole Pateman  
Simone de Beauvoir

**Antropologia**

Shirley eta Edwin Ardener  
Nestor Garcia Canclini  
Dolores Juliano

**Generoa eta hizkuntza:**

Deborah Cameron  
Robin Lakoff  
Dale Spencer  
Kenneth Burke  
Penelope Eckert

**Literatura:**

Jose Luis Borges  
Unai Elorrieta



